



AGURRA

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Eskua astinduz haurrak agurtzean datza. Haurraren jarrerak berak adierazten digu gure eskua onartuko duen ala ez.

Haur batzuek beste aldera begiratuko dute, beste batzuek ezetz esango dute eta beste batzuek kontrako eskua luzatuko digute eta horrek bere lateralitateaz jabetzen lagunduko digu.



PAILAZOA

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Garrantzitsua deritzogu haurren aurrean mutu agertzeari, haurrak begiratzuz eta behatuz mugitzen garen bitartean.

Honela, ikasle mota guztiekin harremanetan jartzen gara: asko hitz egiten dutenekin, keinuka ibiltzen direnekin, gutxi hitz egiten dutenekin...

Guztiak harrituko dira eta esango dute: ama gure irakaslea mutua da eta dena ulertzen diogu.



ZORIONDU

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Ongi eserita dauden haurrengana (apatx eserita) hurbilduko gara eta zorionduko ditugu. “Niri, niri” eskatuko digute baina ongi eserita daudenengana soilik hurbilduko gara, agurtuz.